

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure aplikazioaren balio-proposameneko eskaintza garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko baliabideak honela banatuko ditugu:

- Baliabide fisikoak: Telefonoa eta ordenagailua erabili beharko ditugu, gure proiektua aplikazio bat delako.
- Baliabide intelektualak eta giza baliabideak: Sozio bakoitzaren abileziak eta parte hartzea beharrezkoa izango dugu. Irati Gorosperen estiloa eta konbinazio modernoak lortzeko gaitasuna, taldea eta lana ondo antolatzeko Irati Santosek dituen abileziak, jendea erakartzeko eta haiekin kontaktuan jartzeko Maddik duen naturaltasuna, Ainhizek aurkezpen politak eta aplikazioaren diseinu grafiko modernoak egiteko duen ahalmena.
- Finantza-baliabideak: Taldekideen aurrezkiekin batera, familiek eta lagunak laguntza finantzarioa erabiliko dugu.